

1. Gaia. Kazetaritza tradizionaletik ziberkazetaritzara

- Ziberkazetaritzaren historia laburra

Historian zehar gizakiak komunikatzeko bide eta euskarri ezberdinak ezagutu eta erabili ditu. Euskarriek komunikatzeko medio berrien sorrera erraztu dute. Goizeko agiria edo akta. K.a. 59an, lehenengo egunkaria, teoriko batzuen ustetan. Prentsa, telebista eta irriaren agerpenak, bakoitza bere garaian, mezuak landu eta irakurle, ikusle edo entzuleen aurrean aurkezteko moduak aldatu zituzten. Internetekin berdina gertatu zen. Edukiak modu zehatz batean sortzea ahalbidetzen du, hipertestueltasuna, multimediatasuna eta elkarreraginari esker.

Smartphone edo telefono inteligenteak

IBM Simón Personal Communicator. 1993-94. *Ericsson R380.* 2000.

Informazioaren joskera berria

Mundu digitalak badu bere kontraera berezkoa, informazioa egituratu eta josteko bere *gramatika* berria, hipertestuan, interaktibitatean eta multimedia baliabideetan oinarritua. Horrek, ezinbestean, kazetaritza egiteko bestelako modu bat ekarri du, etengabe aldatuz doana. Era berean, Internetek bidea eman du kazetaritzaren muinari berrekiteko: argi komunikatzeko, labur eta zehatz, edukiak hierarkizaturik, garrantzitsuena lehenbailehen azalduz. Eta hori guztia, berehala, informazioa gertatu ahala emanez, eta hipertestu amaigabe batean irakurleekin interakzioan komunitatea sendotuz.

Hipertestua eta loturak

Hipertestua funtsezkoa da Interneten, eta komunikabide digitalen gakoetako bat da estekak edo loturak egitea. Izan ere, horrek modua ematen du bestela idazteko, edukia bestela antolatzeke: laburrago eta zehatzago idatz daiteke, eta, aldi berean, informazio guztiz osatua eman, mugarik gabe, gehiago jakin nahi duenak informatzen segi dezan.

Multimedia

Komunikabide digitaletan, irudiz lagunduriko testua baino askoz gehiago biltzen da, bertan bat egiten baitute hiru bitartekok: testuak, irudiak eta audioak. Hala, kazetariak eskura dituen baliabide guztiekin jokatu behar du sarean: bideoak, infografiak, mapak, telebista, lokuzioak, elementu interaktiboak... Harreman informatiboak sortu behar dira horien artean, elkarren osagarri baitira; izan ere, sarearen edukia horixe da, bitarteko askoren interakzioa, euskarri bakarrean.

Interaktibitatea

Sarean, kazetariaren eta hartzailearen arteko harreman etengabea da komunikazioaren ardatzetako bat

- Medioak interneten

Lehenengo esperientzia digitalak eta sarean (1992/93-1997)

80-90garren hamarkada. Bideotestuak, audiotestuak, fax bidez bidalitako egunkariak, eta abar. Teletestua. Interneten “sartu” ziren lehenengo egunkariak, paperezko bertsioaren kopia ziren, besterik gabe. Edukia berdina zen. Beldur handiena papera eta online edizioen arteko lehia zen.

Zibermedio edo ziberhedabideak

Edukiak zabaltzen dituzte, gertakariak jendarteari helarazteko helburuarekin. Kazetaritzari lotutako irizpide eta teknikak erabiltzen dituzte, multimediarri dagokion lengoia erabiltzen dute,

interaktibiboa eta hipertestuala da, eguneratzen da eta internet sarean argitaratzen da. Zibermedioek eman zuten benetako jauzia 1990ean iritsi zen. WORLD WIDE WEBarekin (WWW)

Bide-erakusleak

Lehena interneten. 1992an. Lehena bakarrik edizioa WWWn izaten. 1993an. Lehena paperezko bertsioan baino zerbait gehiago eskeintzen zuena. 1993-94ean. The Daily Telegraph-ek sortua 1994ean. ETB1eko *Eskerrik asko Petrov* saioa. 2013 (ordenagailua). ABC. CD-ROM. 1994. El Temps. 1994. Avui. 1995eko apirilaren 1

Diru kontuak

1995etik aurrera edukiengatik harpidetzaren bidez ordaintzera behartzen zituzten irakurleak medio Estatu Batuarrek.

Interneten zergatik?

- 1) Prestigioagatik. Modernotasun irudia emateko.
- 2) Teknologia hauek boom komertzial bat bilakatzen direnean lehen lerroan egoteko beharra daukatelako.
- 3) Banaketak ekartzen dituen buruhaustekak ekiditeko irtenbidea direlako.
- 4) Irakurleak mantendu edo gehitzeko beharra daukatelako.
- 5) Paperak dituen mugak konpontzeko bidea delako.
- 6) Produkzioari eta banaketari lotuta dijoazen gastuen gehitzeak murrizten direlako.
- 7) Irakurle berriak ez galtzeko. Batez ere gazteak.
- 8) Lehiakideak ere interneten daudelako.
- 9) Enpresaren ekintzen eta komunikazio ekintzen dibersifikazioa suposatzen duelako.
- 10) Informatikan egindako aurrerapenak eta ordenagailuen arrakasta dela eta.

Saso berri baten hasiera (1997-2001era)

1997tik aurrera zibermedioak sareak eskaintzen zituen abantailak ikuskatzen hasi ziren. Kazetariak eduki originalak sortzen zituzten, eta hasi ziren estekak eta nolabaiteko elkarreragina ere sortzen. Kalitate handiagoa eskaintzen zituzten informazioari lotutako webak indartu ziren. Edizio digitalerako erredakzio berezitua beharrezkoa zela ikusi zen. Orduko sareko informazio zerbitzuak hedabide tradizionalen eta etorkizuneko multimedia hedabideen erdigunean kokatzen ziren. Ikus-entzunezko baliabideak ustiatzen hasten dira. 1998tik aurrera ziberhedabideak konbergentziaren alde apustu egiten hasten dira. 1997-1998: lehenengo blogak sortzen dira. *Copy-paste* epearen amaiera. Mende berrian sartzearekin batera (2000), aurreko prensa idatziarekiko menpekotasuna izan bazen ere, oinordetza testuala desagertuz joan zen. Sareko eguneko argitalpenak gero eta ezaugarri linguistiko eta erretoriko bereziagoak erakusten hasi ziren. Gutxika-gutxika etengabe eguneratzen eta gero eta hobeto dokumentatzen hasi ziren, zerbitzu osagarriak (hala nola, bilatzaileak, hemeroteka, datu baseak, argazki-artxiboak) eta audientziarekin elkarreraginean aritzeko espazioak eskainiz joan ziren.

Sarerako hedabideak

2002an epe berri bat hasi zen. Ezaugarrietako bat, ziberhedabide batzuk edukiengatik kobratzen hasi zirela. Erronka nagusia. Bigarren erronka, medio klasikoak eta ziberhedabideak osagarri

izatea. Hirugarren erronka WEBak ematen zituen aukerak ondo erabili. Enpresaren estrategiak eta diseinuaren aldaketak burutu zituzten. Internauta kopurua gehitzen zen neurrian eta errekurso digitalak dibertsifikatzen ziren adinean, komunikabide gehiago hasi ziren sarean lekua hartzen.

- **Ziberkazetaritzaren finkapena**

2006etik aurrera medio berriak, lanbide irudi berriak eta audientzia berriak sortzen hasi ziren. Internetek eskaintzen dituen tresnak geroz eta gehiago ustiatzen dira ziberhedabideetan. Paperezko edizioa eta online edizioaren arteko ezberdintasunak nabarmenak dira: edukiak, audientziak, diru sarrerak, diseinu eta maketazioa... Edizio osagarriak bilakatzen dira. Medioek egiten duten inbertsio garrantzitsuei esker eta lan talde profesional gazteei esker formatu berriak sortzen dira. Etorkizuna zein den argi ikusten da: komunikazio multimedia eta konbergentzia edo balio-aniztasuna. Ziberhedabideen hazkundera etengabe jarraitu du. Gaur egun medio tradizionalen ondoan bere leku propioa lortu dute ingurune medioatikoaren barruan. Web 2.0 = Sare Sozialaren ideia edo kontzeptua 2004ean (Tim O'Reilly). 2004an Facebook. 2006an Twitter. "Ipad Journalism"

Multimedia ereduak:

Paperezko egunkariarekin alderatuz, bai itxuran bai edukietan, guztiz ezberdina den produktua; formatu askoren erabilera (irudi finkoa, testua, soinua, bideoa); bisualagoa; irakurlearentzako aukeraketa-hautuak ugaltzen dira, eta paperezko bertsioan ez dauden zerbitzuz eta edukiz hornituta dago.

Ziberhedabideen garapenaren 5 pausuak. Mediamorfosia


1. Komunikabide berriak eta tradizionalak gizarte berean bizi dira, baina bakoitza bere aldetik (*aldi bereko eboluzioa*).
2. Aurretik zeuden hedabideen ezaugarriak hartuz bere izaera egokituz doaz (*metamorfosia*).
3. Hizketa berezi baten bitartez, hedabide berriek hartzaile berriak erakartzen dituzte (*ugalketa*).
4. Ordurako mehatxutzat dituzte aurretik zeuden komunikabide zaharrak, eta, beraz, beren dohainak ahalik eta gehien ustiatzeari ekingo diote (*biziraupena*).
5. Une horretatik aurrera, hedabide berriak audientzia segmentu zehatz batzuen leialtasuna lortzen hasten dira (*aukera eta beharra*).

Konbergentzia edo balio-aniztasuna

Prozesu bateragarri ezberdinen menpe bizi da dago gaur egun kazetaritza. Balio-aniztasun edo konbergentzia teknologikoak ahalbidetuta. Komunikazio enpresek bat egin dute/elkartu dira. Enpresa hauetako ekoizpen egituren bateraketa prozesuek ere baldintzatu dituzte. Kazetaria, bateratze honen ondorioz, lanbide ezberdinak egitera behartuta ikusten du bere burua. Kazetaritzaren lengoaiak ere izan du balio-aniztasunaren eragina.

2. Gaia. Kazetari digitala

Paradigma aldaketa



KOMUNIKAZIO DIGITALAREN KORRONTE ZUZENA		
Irudi finkoak	→	Irudiak mugimenduan
Monomedia	→	Multimedia
Hartze-leku mugiezina	→	Hartze-leku mugikorra
Lineala	→	Elkarreragilea
Pertsonala	→	Masiboa
Harreman estua (intimoa)	→	Harreman zabala (publikoa)

Aldaketak lanbidean

Edozein teknologia berriren agerpenak eradaketak dakartza kazetaritzaren lan egiteko moduan eta honek kazetariak GAITASUN BERRIAK garatzera bultzatzen ditu. Mundu osoan dauden erredakzioetan sartu diren aurrerakuntza teknologikoei ekoizpen prozesuak dituen atal guztietan eragina izan dute.

Balio-aniztasun profesionala

- 1-Balio-aniztasun mediatikoa.
- 2-Balio-aniztasun teknologikoa.
- 3-Balio aniztasun funtzionala.
- 4-Gaiaren araberako balio-aniztasuna.
- 5-Balio-aniztasun transmediatikoa.
- 6-Hizkuntzari dagokion balio-aniztasuna.

Aldaketak ziberkazetarien lanbidean

Kazetaritza oraindik ere zerbitzu publikoa egiten duen lanbidea da eta horregatik kazetariari betiko funtzio informatibo eta interpretatiboa eskatzen zaio. Ingurune mediatiko berrian bere komunikazio lanak gehitzen dijoaz. Informazioa jaso, ekoiztu eta zabaldu behar du tresna berrien bidez. Horrela multiformatuaren eta gai espezifikoaren araberako eskaerak asetu beharko ditu, hau da geroz eta audientzia hiperaktibo eta hiperselektibo horren eskaerak asetu beharko ditu.

Errutinen aldaketak eta betebeharrak direla eta KAZETARIEN PROFIL BERRIAK sortzen dira. Zaharkituta geratu diren profil profesionalak desagertzen dira. Beste batzuk eraldatzen dira edo lan hori kazetariak berea egiten dute. Testuinguru honek profesionalen malgutasuna, egokitzeko eta birziklatzeko gaitasuna eskatzen du.

Lanbidearen funtzioa: bitartekotza

Komunikazioaren ekosistema aldatu da. Norabide bakarrekoa izatetik horizontala eta dialogikoa izatera igaro da.

-Eskema klasikoa, top down edo bertikala: igorle-bitarteko-mezua-hartzailea.

-Bertsio dinamikoago bat agertzen zaigu: horizontala.

Askoren arteko komunikazio asinkronikoa. Norantz asko dituen informazioa. Elkarlana; audientzien boterea; publikoaren hitza; elkarrizketa; besteak entzutea; audientziaren kontsumo-jarrerak eraldatu dira. Hedabideen ohiko bitartekotza aldatu da, ez da funtsezkoa. Sare sozialen eta webguneen bidez iturriek zuzenean zabaltzen dituzte informazioak. Bitartekotza ez dago hedabideen/kazetariaren eskuetan bakarrik. Txakur zaindariaren papera denok bete dezakegu. Komunikazio-kabineteen garrantzia areagotu da.

Ziberkazitarien gaitasunak

Prozeduraren araberakoak

Kontzeptualak

Jarduera

Komunikatzailea osotasunean

Istorioa hitzekin, irudiekin edota soinuekin kontatzen daki. Sareko kultura eta joerak ezagutzen ditu. Berehalako informazioa ekoizteko ahalmena dauka. Badaki nola erabili informazio kopuru handia. Ahalmen sortzailea eta berritzailea du. Badaki nola bermatu elkarreragina. Elkarlanaren aldeko jarrera dauka.

Kazetariaren profil berriak

1-Entzun

2-Informazioa barnean zabaldu.

3-Enpresaren balioak eta nahiak zabaldu.

4-Komunitatearen liderrak bilatu.

5-Enpresa eta komunitatearen arteko elkarlanak topatu.

Albisteak lantzeko datu base handiak erabiltzen dituen kazetaritza da. Grafiko eta infografiak erabiltzen ditu datu horien ulermena errazteko. Big data eta informazioaren gardentasunarekin batera sortu zen. Kazetariak programazio tresnak eta bilatzaileak naiz informazioa egiaztatu eta bisualizatzen dituztenak erabiltzen jakingo du. Smartphona erabiliz grabatu, ekoiztu, editatu, eta zabaltzen da informazioa komunikabideetan. Erraztasuna, arintasuna, aukera asko, zabalkuntza, merkea.

Profil eskatuenak/bilatuenak

Kazetari digitalak. SEO edo SEM. Web analista. Social mediaren planifikatzailea. Multimedia garatzen duen profesionala. Free lance digitala

Enpresek zer eskatzen diote kazetariari?

Erredaktore onak: Oinarritzak da ondo idazten jakitea. Kazetaritzaren estiloa ondo ezagutzea. Eta honek formakuntzarekin zerikusi handia dauka. Profesional berriek erredaktore multimedia moduan egin behar dute lan. Informazio batean ziberkazetaritzaren oinarritzako elementuak barneratzen jakin behar dute: hipertestua, multimediatasuna eta elkareragina edo interaktibitatea.

Bisualizazioa erraztu: Medio guztietan begietatik sartzen diren irudi eta ikus-entzunezko formatuek lehenetsua daukate publikoaren arreta lortzen dutelako. Arreta hori lortzeko modua: TITULAR LABUR ETA DEIGARRIA eta BIDEO EDO GRAFIKO itxuraz sinplea, ikusgarria eta ulerterraza.

Trebeziak garatzen jakin: INFORMAZIO KONPLEXUA SINPLIFIKATZEN JAKIN, modu erakargarria eta kalitatezko klik-a sortaraziz (clickbaitetik aldentuz) kuriositatea pizten duena. Patxadaz irakurtzera gonbitea egiten duena. SLOW KAZETARITZA. Interpretazio lanak geldiro eta sakonki gauzatuak. Informazio zehatza, ondo dokumentatua, sakona eta ondo idatzia eskeini behar da. INFORMAZIOA KUDEATU. Gehiegizko datu eta informazioari aurre egiten jakin behar da. GUTXIREKIN ASKO ESAN. Garrantzitsua dena eta ez dena bereizten jakin. Informazio fidagarria eta egizatu gabe dagoena bereizten jakin. ITURRI BERRIAK. Sare sozialak informazio iturri bezala erabiltzen jakin. Internet erreportaje eta albisteen erakusleho bezala erabili. BIDE BERRIETATIK ZABALDU. Edukia sare eta komunikazio foro berrietatik zabaldu.

Lanbidearen gaitz nagusiak

Langabezia eta lanbidean dagoen ezegonkortasuna. Egindako lanetatik soldata eskasa. Independentzia falta. Neutraltasun eta zorrotasun falta.

3. Ziberkazetaritza generoak. Albistea

- **Kazetaritza Generoak**

INFORMAZIO GENEROAK

INTERPRETAZIO GENEROAK: kronika, erreportaje interpretatiboa.

IRITZI GENEROAK: iritzi artikulua, zutabea, kritika.

Kazetariak, esku artean duen gaiari nola heldu nahi dion, horren arabera aukeratuko du zein genero erabili, kontatu nahi duena kontatzeko. Izan ere, generoaren arabera, testuek eta maketazioak ezaugarri jakin batzuk dituzte. Testu batzuetan, gertakizunen berri jakinarazten da, bestelakorik gabe: ez iritzirik, ez lehen pertsonarik, ez inolako marka pertsonalik. Informazio generoak dira. Beste kazetari lan batzuk pertsonalagoak dira, eta idazkeraz ere libreagoak eta literarioagoak. Informazioa ematen dute, baina, aldi berean, gertaeren interpretazioa egin ere bai. Horregatik, interpretazio generoak direla esan ohi da. Badira, era berean, egilearen jarrera agerian utzi eta irakurlea pertsuaditzeko edo limurtzeko idatziriko testuak ere: iritzi generokoak, hain zuzen ere. Normalean aipatu ohi diren generoak albistea, erreportajea, elkarrizketa, kronika eta iritzi artikulua dira, baina badira azpigeneroak ere, zein bere ezaugarriekin. Dena dela, gero eta meheagoa da generoak bereizten dituen marra: genero baten ezaugarriak beste batenekin uztartzen dira sarritan.

Kazeta-estiloa

Argia: Lehenengo irakurraldi batean ulertu behar da. Zalantzarako tarterik gabe. Idatziko duenaren egitura eta ideiak argi eduki behar ditu kazetariak.

Zehatza: Hitz bakoitza ondo aukeratu. Adjektiboak bereziki. Berria ondo ulertzeko beharrezkoak diren datuak emango dira, ez gehiago. Bere testuinguruan kokatu behar da informazioa. Esteken bidez informazioa osatu daiteke: informazio gehiago nahi duenak eskuratu dezan.

Xumea: Bizia eta ulerterraza. Xumeltasuna, arintasuna eta sendotasuna. Esaldi laburrak eta luzeak tartekatu erritmoa lortzeko

Erakargarria: Penderiarik ez. Irakurle guztiek ulertzea da helburua. Hitz eta errekurtsio egokiak, irakurtzen jarraitzeko gogoia pizteko. Kazeta-genero batzuetan besteetan baino errazagoa izango da.

- **Albistea**

Gertaera bati lotutako berria da, zer gertatu den ulertzeko oinarritzko testua, nondik norakoak azaltzen dituen. Kazetaritza klasikoan, honako galdera hauei erantzun ohi die albistek: *nor(k)*, *zer*, *non*, *noiz* eta *zergatik*. Batzuetan, baita *nola* galderari ere. Gaur egun, ordea, ez da ezinbestekoa beti-beti galdera horiei erantzutea. Kazetariak jakin behar du bakoitzaren garrantzia neurtzen eta horren arabera jokatzeko. Esaterako, gerta liteke beste galdera batzuei ere erantzun behar izatea, mamia emateko: *noren arabera*, *zertarako*, *zenbat*...

Albistea da kazetaritzak duen genero esanguratsua, gakoa. Ziberhedabideetan hare eta nabarmenagoa da garrantzi hori. Ziberhedabideen sorrerarekin, sareko idatzizko argitalpenek, paperezkoek galdutzat ematen zutena berreskuratu dute: azken momentuko informazioa helarazteko gaitasuna. Gaur egun telebistak edo irratiak duten berehalakotasunarekin lehiatzeko gai dira orain.

Azken orduko albistek online edizioetan sartzeko estrategia erabilgarria izan da: Online edizioa eta paperezkoa ezberdintzeko. Irakurleen arreta pizteko eta baita nolabaiteko leialtasuna lortzeko. Albistea, interesa duen informazio berri batean oinarritutako testu labur bat izan ohi da,

interpretaziorako lekurik gabekoa. Edizio digitalek eskaintzen dituzten aukerei esker irakurleak erabaki dezake gai baten inguruko ezagupenean zein izango den hartuko duen denbora eta emangodion sakontasuna. Horrela albistearen mugak irekiko dira.

Ziberespazioak lengoaiari dagokionez dauzkan ezaugarri nagusiek eragina dute albistean.

HIPERTESTUALITATEA ematen duen aukerari esker loturen edo esteken bidez irakurleak bere ibilbide propioa sortuko du. Lotura hauek albistea aberasten dute

ELKARRERAGINA EDO INTERAKTIBITATEA

MULTIMEDIATASUNA

BEREHALAKOTASUNA albisteen etengabeko eguneratzea dakarrena.

- Albistearen ezaugarri formal BERRIAK

- 1- **TITULU-LOTURA:** Ziberhedabide gehienek titulua erabiltzen dute berriaren informazio nagusia azpimarratzeko, baina baita nabigazio hipertestualaren abiapuntu bezala ere. **Polikronismoa:** Ziberhedabide batean zerbait helarazten den momentutik jasotzen den momentua arte denborarekiko sor daitezkeen erlazioei lotuta doa termino hau. Argitaratzen den momentuan irakur daiteke edo denbora igaro eta gero.
- 2- **ZEHAZTASUNA DATA / ORDUA IDAZTEAN:** Ziberhedabideetako albisteak testuinguru polikroniko batean argitaratzen dira. Beraz, albistearen data zehatz mehatz idatzi beharko da. Argitalpenaren eguna, ordua eta minutua jakitera ematen dira.
- 3- **ZATIKETA HIPERTESTUALA:** Ziberhedabideetan ohikoena da izenburua azaleko adabegi (nodo) batean aurrekari izatea (orrialde nagusia edo sailaren azalean) eta testu osoa bigarren mailako adabegian agertzea. **Hipertestua:** Era ez sekuentzialean (edo sekuentzialean nahi izanez gero) irakur daitezkeen dokumentu digital bat da. Hipertestu batek hurrengo elementuak biltzen ditu bere baitan: sailak edo adabegiak, hiperloturak eta ainguratzeak. Hipertestuak gaur egun HIPERMEDIAK dira: loturen bidez, baliabide testualak, grafikoak eta ikus-entzunezkoak konbinatzen dituen hipertestuak.
Sailak edo abadegiak: Adabegia intersekzio puntu bat da, leku berdinean elkartzen diren hainbat elementuen arteko lotura edo konexioa
Ainguratzeak: esteken eragite puntuak dira. Egun, hipertestuaren adierazpenik egokienak nabigagarri diren web orrialdeak ditugu.
- 4- **LOKAIRU PARAGRAFOA EDO TEASERRA:** Albisteek ziberhedabideetan oinarritzko zatiketa bat erakusten dute: Lehenengo mailan: izenburu-lotura bat. Bigarren mailan: Izenburua (errepikatuta edo luzatua) eta albistearen gorputza
- 5- **LOTURA DOKUMENTALAK:** Informazioaren ikuspuntutik estekak edo loturak ziberkazaritzaren bi oinarritzko helburu betetzen ditu: bata dokumentala eta bestea kontatzeko moduari dagokiona. Dokumentala: estekei esker informazioaren xehetasunetan nahi adina sakondu daiteke. Oinarritzko informaziotik, xehetasun zehatzenak ezagutzera. Kontatzeko moduari dagokionez, hipertestuan zehar estekak kokatzeko modua irakurketa ibilbideak bideratuko ditu. Barneko loturak: **intranodalak**, adabegi askoren amaieran agertzen diren loturak: “Igo”, “gora”. **Internodalak**, bertan informazioaren xehetasunak hobeto ezagutzeko edo testuan agertutakoa egiaztatzeko.
- 6- **MULTIMEDIAREN ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN USTIAPENA:** bertan informazioaren xehetasunak hobeto ezagutzeko edo testuan agertutakoa egiaztatzeko
- 7- **ERABILERA INTERAKTIBOAK:** Komunikazio digitalaren izaera horizontalaren eraginez albistea kazetaritzaren beste forma eta eratara egokitu da. Irakurleek bozkoa eman dezakete, aipamenak egin, zuzenketak, eta abar. Inprimatu edo lagun batekin partekatzea baino gehiago da interaktibitatea

- Albistearen egitura

Orokorrean:

Irakurleek orokorrean ez dute orrialde osoa irakurtzen, eskaneatzen dute informazio bila. Testuaren egitura lagungarria da bilatzen ari dena identifikatzeko. Letra lodiak/beltzak eta *letra etzanak*. Albistearen izenburua idazterakoan arreta berezia jarri behar da. GAKO-hitzak erabili, gai nagusia deskribatzen dutenak, bai erabiltzaileentzat eta baita bilatzaileentzat ere. ZEHAZTASUNA. Hizkuntza zuzena. Irakurleak berehala ulertu nahi du. Ez du denborarik galdu nahi. Erabiltzaile eta nabigatzailea ERAKARRI. ADITZA aurreratu testu dinamikoagoak sortzeko. LABURRAGOA Laburra baina ez eskasa: buelta gehiegi eman gabe eta errepikapenik gabe. Testu luzea baino hobe da edukia testu ezberdinetan banatzea hipertestuaren bidea. Berdina aplikatu dezakegu bideo edo audiei dagokienez. EGUNERATU, Adibidez hauteskundetan. 20:00tan ematen diren datuak eta egiten diren iragarpenak eguneratzerakoan aurretik argitaratutakoa kontutan hartu behar da BILATZAILEETAN AGERTZEKO, Hitz deskriptiboak izenburuetan eta izenburu ez oso luzeak. Interneteko bilatzaileek gako-hitzak erabiltzen dituzte testuak erregistratzeko.

Esteken betekizun nagusiak

IDENTIFIKAZIOA. Profil pertsonala, profesionala, enpresarena... TESTUINGURUA. Aurrekariak, dokumentazioa... ITURRIAK EGIAZTATU. Esandakoa baieztatu edo ukatzen dutenak. Kasu hauetan berebiziko garrantzia dauka loturek fama oneko webguneetara eramatea. GARDENTASUNA. KALITATEA, Lotura egokiek testuari kalitatea ematen diote. GOMENDATU ETA ZABALDU. EGUNERATU. Argitaratu eta gero egongo diren erreakzioak gehitu. BILATZAILEETAN BISITARIAK. Google, Yahoo... loturak identifikatzen dituzte. Loturen erabilerak albisteen posizionamendua hobetzen dute (posizionamendu estrategia).

Titulua

Zenbat eta laburragoa, indar gehiago izango du. Deskribatzailea, bilatzaileek errazago topatzeko. Plataforma bakoitzera egokitzeko eta bilatzaileetan hobeto posizionatzeko, 3 titulu: 1-AZALEAN. Adierazkorragoa izan daiteke, pertsonalagoa, literarioagoa. 2-ALBISTEAN BERTAN. Guztiz deskribatzailea. Hau artxiboan geratuko dena izango da eta bilatzaileak indexatuko dituen) 3-SARE SOZIALAK. Ahal den bezain sintetikoa. Twitterren hastag-arekin.

Ikerketa buruan izan. **Eyetrack**. Ideia bat: Zer eta Nor. Funtzio bikoitza: informatzailea eta deigarria. Titulua sarean edukia nabarmentzen laguntzen du, hori dela eta komeni da gako-hitzak egotea. Gako-hitzak elementu guztietan errepikatu. Laburrak eta zehatzak. Komarik ez eta puntua ere ez.

Motak: INFORMATIBOAK: datu objektiboak adierazten dituzte. Gertatutakoaz eta protagonistaz ari dira. **ADIERAZKORRAK:** kiroletan asko erabiltzen da. Hitz gutxi baina adierazkorrak. Irakurleen emozioetan zirrara sorrarazi nahi dute. **ADIERAZPEN (AIPU)-TITULUA:** protagonistaren hitzak dira, aipu zuzenak, zeharkako aipuak eta bitarikoak edo hibridoak. **DEITZAILEAK (APELATIBOAK):** gertakari baten inguruan atentzioa emateko lengoia erabiltzen dute, baina informazioan gehiegi sakondu gabe.

Titulu mailak: Lehenengo maila: informatiboa. Gertakarietan oinarritutakoa, (BARNE MINISTROA KARGUTIK KENDU DUTE DIRU PUBLIKOA BIDE GABEKI XAHUTZEAGATIK). **Bigarren maila:** aditz metaforikoekin (BARNE MINISTROA KARGUTIK KENDU DUTE KUTXA PUBLIKOAN ESKUA SARTZEAGATIK). **Hirugarren maila:** kalifikatzaileekin (BARNE MINISTROA KARGUTIK KENDU DUTE USTELKERIAGATIK: DIRU PUBLIKOA XAHUTU DU) **Laugarren maila:** hitz jokoekin. (LÓPEZ MINISTROA HONDORATUTA KARGUTIK KENDU DUTELAKO DIRU PUBLIKOA GAIZKI KUDEATZEAGATIK). **Bostgarren maila:** sentsazionalista

(ARRAPATUTA). **Seigarren maila:** editoriala(BAT GUTXIAGO: BARNE MINISTROA KARGUTIK KANPO BIDEGABEKI XAHUTZEAGATIK). **Zazpigarren maila:** hutsala (LÓPEZ DESEGINDA)

- **Teaserra edo lotura paragraoa**

Helburua: Testua irakurtzeko gogo eragin edo piztu. Irakurlea erakarri eta gero hurrengo geruzara igaro eta irakurtzen jarrai dezala. *Laburra + informatiboa + erakargarria: albistearen lead-a*. Ezinbestekoa azken momentuko berriei buruz informatzeko, sakontasuna lantzen den bitartean.

- i. Funtzioa: Laburpena: zuzena eta 5W-en arauari erantzuten dio.
- ii. Eraginkorra: laburra eta indarrarekin.
- iii. Kontrastea: bi aldeak edo bi informazioak kontrajartzen ditu.
- iv. Galdera erretorikoa. Zalantzarik argitzeko baliagarria. Kontuz erabili behar da.
- v. Giroa: atmosfera eta giroa ezagutzera ematen ditu.
- vi. Ez-egitea (omisioa): osotasunean ulertzeko informazio nahiko ez du eskeintzen, momentu garrantzitsuenean eteten da.

- **Sarrera eta gorputza**

Sarrera: Ezinbesteko elementua. Erabiltzaileak ez du albiste osorik irakurtzen horregatik dira lehenengo lerroak garrantzitsuak. Bereziki zaindu behar da: zehaztasuna eta erraztasuna, sintaxian edo ideietan konplexutasunik gabe. Ez dira aipu gehiegi sartu behar, izen abizenak, karguak, eta abar. Hurrengo paragrafoetan azalduko da ezinbestekoa ez dena.

Gorputza edo testu nagusia: Gertakari eta datuak azaltzen dira garrantziaren arabera. Piramide irauliaren araua jarraituta. Ziberalbistearen sakontasunean bigarren maila. Albistearen gorputza ondo egituratzeko: Ideiak paragrafoen arabera antolatu. Testu batek ezin du bi pantaila baino gehiagoko lekua hartu (sakontasun hipertestualaren bigarren maila).

4. Gaia. Elkarrizketa.

Elkarrizketa pertsonala, kazetari batek eta informazio iturri den intereseko pertsona baten arteko solasa, komunikabideetan idatziz (baita irrati eta ikus-entzunezkoen bidez) zabaltzeko modua da.

Elkarrizketa arrunta (adib. lagunekin) eta kazetaritza-elkarrizketa bereiztu behar ditugu:

Kazetaritza-elkarrizketan hiru interes mota daude: Elkarrizketa egiten duenarena. Elkarrizketatuarena. Irakurlearena.

Elkarrizketa arrunta ez dago apropos bilatuta. Kazetaritza-elkarrizketan nor elkarrizketatu pentsatzen da, eskaera egiten da eta prestatzen da. Kazetaritza-elkarrizketan testua ez da elkarrizketaren transkribaketa hutsa, aukeraketa bat baino. Ez da dena sartzen, eta sartzen dena berriatzi behar da.

Elaborazio bat dago, inork ez baitu idazten hitz egiten duen moduan. Kazetaritza-elkarrizketan gertutasuna garrantzi handiko ezaugarria da. Irakurleak mezua pertsonaiarengandik zuzenez jasotzen duela sentitu behar du

- Elkarrizketaren ezaugarriak sarean

Hipertestualitatea: Estekak erabiltzeko aukera elkarrizketatuaren erantzunak osatzeko (aurrekariak, dokumentazioa...). Multimedia: Irudiak, bideoak sartzeko aukera. Elkarrizketaren eragina: Elkarrizketa interaktiboa, parte-hartzailea, edo topaketa digitala (hedabidea moderatzaile gisa).

Sinkronikoa edo asinkronikoa izan daiteke. Erabiltzaileak bere galderak helarazten ditu eta elkarrizketatuak zuzenean erantzuten du. Galderak bildu eta hautatu egiten dira elkarrizketa egingo dela alde aurretik iragarri ondoren (baliteke irakurlea erregistratzea beharrezkoa izatea).

- Elkarrizketaren egitura

Titulua: Elkarrizketatuak elkarrizketan zehar esandako zerbait: interesgarria, deigarria, berria... Elkarrizketaren gaia/izpiritua definitzen badu hobe. GORPUTZEAN ERE agertu behar da.

Aurretitulua: Elkarrizketatuaren izen eta abizena. Lanbidea edo elkarrizketatua izatearen arrazoiak: zaletasunen bat, saritua izan dela...

Sarrera: Pertsonaia identifikatzeko argazki bat sartu behar dugu. Honen ondoren, sarreran identifikazioa osatuko dugu: zer dioten gure protagonistak, zer egiten duen, nolakoa den, etab. Normalean, elkarrizketa gaurkotasunarekin erlazionatuta dago. Gaurkotasuna elkarrizketa egiteko aitzakia edo jatorria da. Sarreran pertsonaia eta gaia kokatu eta aurkeztu behar ditugu. Aurkezpena, kokapena eta gaurkotasunarekiko erlazioa zenbat eta ezagunagoa izan, sarrera hainbat eta laburragoa izango da. Giroa azaltzea komenigarria izan daiteke ere.

Gorputza: A. Galderak eta erantzunak (zuzena): Hitzek hitz (gutxi gorabehera eta akatsak kenduz) kazetariaren eta pertsonaiaren arteko elkarrizketa islatzen saiatzen da. Gehien erabiltzen den egitura: galdera/erantzuna. Iritziak eta interpretazioak ez dira agertzen, elkarrizketaren berridazketa fideltasun osoz egiten da. Naturalagoa dirudi, neutroagoa, objektiboagoa, baina itsura besterik ez da, kazetariak elkarrizketa berriatzi du argitaratu baino lehen, edizio lana dago. Pertsona arlo batean aditua delako interesatzen zaigu, eta bere jardura profesional, sozial, politikoa eta artistikoaren inguruko iritziak bilatzen ditugu.

B. Idatzitako galdera zuzenik gabe (zeharka): Egitura hau erabiltzen denean informazioa eta interpretazioa agertzen dira. Pertsonaiaren ideiak kazetariaren ikuspegitik azaltzen dira. [Galdera/erantzunaren egitura ez da agertzen](#). Kazetaria lehen planetik desagertzen da. Kontalariaren papera edo betebeharra hartzen du. Kontakizun baten barruan sartzen da dena, elkarrizketatuaren adierazpenak komatxoaren artean ematen dira eta pertsonaiaren azalpenekin eta

pertsonaiari buruzko deskripzioekin tartekatzen dira. Material osagarriak ematen dira tarteka: datuak, inpresioak, giroa, deskribapenak... Askatasun formala handiagoa da, elkarrizketa mota hau literarioagoa da. Askotan egitura hau (galderarik gabekoa) hautatzen badugu pertsonaia bera, ibilbide pertsonala edo bere barne mundua gehiago interesatzen zaigulako da. Pertsonaiaren erretratua egiten da bere biografia, bizitzaren datuak, eta abar, aipatuz. Aipu-erreportaje baten antza dauka. Non dago desberdintasuna: Elkarrizketan elkarrizketatuaren ahotsa nagusitzen da. Iturri bat baino ez dago. Aipu-erreportajea gaia nagusitzen da. Iturri asko daude eta erreportajea osatzeko erabiltzen dira.

Elkarrizketa nola idatzi: Galdera-erantzunen aukeraketa eta laburpena. Galderak moztu, zehaztu. 3-4 paragrafoko erantzunak ez dira gomendagarriak. Hitz egiterakoan erabiltzen dugun hizkera idatzizko erara moldatu, baina EDUKIA EZ DA ALDATU BEHAR. Solasaldi sentsazioa sortu. Galderak ez dira zertan kronokogikoki egin diren ordenean sartu behar idatzizko testuan.

- **Elkarrizketa mota ohikoenak**

Gaurkotasunari lotutakoa. Nortasun elkarrizketa (Gaia elkarrizketatua da). **Elkarrizketa literarioak** (Ekoizpen estetiko bat lortu nahi du kazetariak. Elkarrizketa mota hau nahiko irekia da eta interpretazio ugari sortzen du, batez ere hizkuntzagatik). **Formula elkarrizketak** (Kazetariaren esku hartzea txikia da. Galderak astero errepikatzen dira. Astero pertsona ezberdin bati elkarrizketa egingo zaio baina galdera berberak erabiliko dira. Oso elkarrizketa dinamikoa). **Egokitutako galdetegia** (Galdera labur eta azkarrak, baina elkarrizketatuari egokituak).

- **Beste genero dialogikoak**

Lehen eskuko informazioa lortu, gaurkotasunari lotutako gaiei buruzko iritziak jaso eta baita irakurleei interesatzen zaien gaien ingurukoak ere. Idatzizko jardunak (solasak) bideratzen dituzten formatuak dira, diferituan egiten direnak edo aldiberean. Jardunaren denboratasunaren, edukiaren eta tonuaren arabera; galderak eta erantzunak adierazten diren moduaren arabera eta parte hartzaileen arabera, formatua ohiko elkarrizketa, foroa, inkesta edo txat-a izango da. **Txat-ak:** Elkarrizketan kazetariak eta elkarrizketatuak hartzen dute parte. Txatean kazetariak, elkarrizketatuak edo gonbidatuak eta hirugarrenik zibernautak egongo dira. Kazetariaren rola aldatzen da, galderak egiten duena izan beharrean moderatzaile rola hartzen du. **Foro edo debatea:** Foroaren ezaugarrietako bat iraunkortasuna da. Debate edo eztabaidarako iraupen luzerako lekua dugu foroa. Foroetan kazetariak bi jarrera mota izan dezakete: parte hartzailea edo zaintzailea. **Inkesta:** Inkesta, populazio bateko pertsona edo erakundeei egin beharreko galdera multzoa da

5. Gaia. Infografia

- Definizioa

Informatika eta grafia hitzen akronimoa da. Irudiak ordenagailuen bidez sortzeko teknika da infografia. Hitza bera nahasgarria izan da betidanik. Alde batetik, konputagailuen bitartez edozein irudi mota sortzeko prozedura esan nahi du, eta, beste batetik, informazioa luzatzeko erabilitako edozein irudi mota, eta bai sortze prozedura ere. Adibidez: mapak, datu-etaulak, krokisak, diagramak eta kronogramak.

Infografiak hipermedia kalitateak dauzka, hipertextua infografikoaren edukia antolatzeke balio du eta honen parte desberdinetara sartzea ahalbidetzen du. Gainera bideo eta audioetara loturak barneratzen ditu. Infografiak interneten multimedia kalitateak eskeintzen ditu.

Lan infografiko batek jaso dezakeen sari garrantzitsuenetako bat Nazioarteko Malofiej saria du. Kategoria ezberdinak daude eta lau irizpide hartzen dira kontutan lan onena saritzeko:

INFOGRAFIKOAREN ERABILGARRITASUNA (antolakuntza eta nabigatzeko erraztasuna) **KARGA** (Azkartasuna, aurkezpena eta aurrekargaren diseinua) **DISEINUA** (tipografia, konposizioa eta estilo grafikoa) **FORMATU ERABAT BERRIA**.

- Ezaugarriak

1-Ez dira izan bakarrik ilustrazioei lotutako lanak. Kontzeptuak, gertalekuak, eta abar, zabaltzen saiatzen dira hasieratik, aurkezpen estetiko bati lotuta. Hitzekin azaltzeko zailak diren edukien lagungarri dira.

2-Ikus-elementuen elkarketa. Errepresentazio grafiko baten bidez informazio konplexua sintetizatu eta argitu daiteke. Irakurleari ulermena erraztea du helburu, baita irakurketa erakargarriagoa egin ere. Diseinua, ilustrazioa eta kazetaritza elkartzen ditu.

3-Kazetaritza genero ikonografikoa. Errepresentatu, berregin edo aintzindari izateko aukera eskaintzen du. Badira hainbat gertakari edo fenomeno, zeinetan argazkirik ez dagoen edo gauzak ondo azaltzeko nahikoak ez diren. Kasu hauetan irudi eta hitzen arteko integrazioen bidez hobeto azaldu edo deskribatu daitezke eta horrela irakurleak mezua hobetu ulertuko du

4-Hizkuntzaren eta irudi ikonikoaren arteko simbiosia. Informazioa modu sintetikoan zabaltzeko aukera honek ziberhedabideetan ingurune ezin hobea topatu du bere garapenerako.

5-Ziberespazioak dituen aukerak hoberen eta azkarren probestu dituen kazetaritza generoa.

6-Ulermena posible egiten du edo errazten du. Gaurkotasuneko gertakari, ekintza edo gauzak hobetu ulertzen laguntzen dute, ezaugarri adierazgarrienetan oinarrituz eta estetika ere kontutan hartuta.

7-Informazio-testua laguntzen du edo ordezkutzen du. Informazio unitate autonomoak dira batzuetan. Ez diote bata besteari elkar eragiten.

8-Informazio testuinguru zehatzetan agertzen da. albiste garrantzitsuak diren informazioetan erabilgarri dira osagarri bezala egiten duten ekarpenagatik. Gehienetan gertakari esanguratsu horien konplexutasuna dela eta irakurleak azalpen gehiago behar ditu

- Infografia mota desberdinak

1-Mapak, Krokisak, planoak eta kokatzeak. Ezinbestekoak dira gertakari baten kokagunea erakusteko. Irakurleak gauzak zehazki non gertatu diren jakin nahi du.

2- Estatistika grafikoak. Gehien erabiltzen direnak. Estatistikei eta zenbakiei lotutako informazioa erakusten dute. (Zirkuluak edo opil moduko grafikoa, Eboluzioak edo sukarrak, Lerroko grafikoa, Datu taulak)

3-Organigramak. Kontzeptuak hierarkizatzeko eta antolatzeke zein prozesu baten faseak deskribatzeko balio dute organigramek. Horien artean, kronogramak ere baditugu.

4-Diagramak. Helburua zerbaitek nola funtzionatzen duen edo nola ikusten den erakustea denean oso egokiak dira.

- **Infografikoaren elementuak**

Titulua: Zuzena eta ahal den sintetikoena, koadro osoan agertzen denaren edukia azaltzen duena. Nahi izanez gero azpitulua ere eraman dezake. **Testua:** Laburra eta koadroan agertzen dena ondo azaldu behar du irakurleak dena uler dezan. Koadroaren gorputzak azaltzen ez duena testuaren bidez azaldu behar da. **Gorputza:** Koadroaren mamia da, informazio bisuala. **Iturria:** Infografian agertzen den informazioa nondik jaso den aditzera ematen du.

- **Beste adibide batzuk**

Mapak, estatistikak, diagramak...

6. Gaia. Erreportajea sarean.
- **Zibergeneroen sailkapena**

Informazio generoak: albisteak eta infografiak

Interpretazio generoak: Kronika

Erreportajea Gaurkotasuneko erreportajea

Erreportaje berezia

Genero dialogikoak: elkarrizketak, foroak debateak, txatak, inkestak.

Iritzi generoak: Tradizionalak: editoriala, kritika, artikulua, zutabea...

Sareko debateak: foroak, txata...

- **Erreportajearen ezaugarri orokorrak**

Egiturari dagokionez albistea baino **libreagoa** da. Zer gertatu da eta nor da protagonista klasikotik harago doa: gertaera nola eta zergatik jazo den argitzea du xede. Albisteak errealitatearen argazki bat ematen badu, erreportajeak errealitatearen erradiografia ematen du. Sakonagoa da. Albistean baino **elementu gehiago** erabiltzen dira: lehioak (sumarioak, aipuak izan daitezke), tartekiak (testua bereizten duten titulutxoak), zatidurak (azpigaiak edo gai nagusiarekin erlazionatutako gaia, elkarrizketa izan daiteke)... **Hizkuntzari** dagokionez, sareko erreportajearen kontraera literarioagoa da, libreagoa, kazetariaren nortasunaren arabera idatzia. Adjektiboak onartzen ditu. Informatzeaz gain, deskribatu, azaldu, analizatu, konparatu eta interpretatu egiten du kazetariak. Baina **ez du iritzirik ematen**. **Gaia**: gertaera bati lotua egon daiteke, baina gai, auzi, egoera orokorrei buruz ere izan daiteke. **Gaurkotasunari** lotua joan daiteke edo ez. **Iturri ugari** baliatu ohi ditu, gehienak propioak. Erreportajeetan lantzen den gaian aditu direnen iritziekin interpretatu behar ditu datu edo informazioak. Originaltasuna bilatu behar da (ikus-puntuarengatik, gauzak ikusteko eragatik). Kolorea izan behar du baina aldi berean gauza mamitsuak azaldu behar dira. Hasiara erakargarri bat, garapen interesgarri bat eta amaiera borobil bat izan behar du. Irakurlearen arreta piztu behar du. Ez du aspertu behar.

- **Multimedia erreportajearen ezaugarriak**

Multimedia erreportajea lehenik eta behin **kazetaritza erreportajea** da, baina testua eta ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen dituen. Medio digitala erabiltzen denez kazetariak **tresna digital** ezberdinak erabiltzen jakin beharko du. Genero hau egokia da **hipertestualitatea eta multimedia baliabideak** aprobetxatzeko. **Elkarreragina** ahalbidetzen du: inkestak, foroak, elkarrizketa digitalak, eta abar erabiliz.

Testuaren ezaugarriak

Hizkuntzaren erabilera aberatsa eta anitza da. Bereziki multimediatikoak diren erreportajeetan testua bigarren lerroan gera daiteke. Ohikoa ez bada ere hoberena da testua dokumentu ezberdinetan banatzea. Medioek dokumentu bakarrean idatzitako testua aurkezten dute edo testurik gabeko ikus-entzunezkoa dokumentua. Testua ez da bakarrik medioak sortutakoa, baizik eta beste iturriek sortutakoak (esteken bidez jasotzen dituenak irakurleak)

Irudi estatiko eta dinamikoa

Erreportajeetan egongo diren irudien kopurua oso bestelakoa da irudi estatikoez (hau da, argazkiez), aplikazien bidez burututako animazioez (esaterako flash) edo bideo zatiez ari bagara. Erreportajeetan bideoak ez dira oso ohikoak, kazetariei lan gehiago ematen dielako eta

garestiagoak direlako (dirua eta giza-errekurtsoak). Gainera ikus-entzunezko artxiboen deskargaren geldotasunak ez du laguntzen.

Soinua

Soinua egotea, irudien osagarri bezala edo leku berezi bat edukita, ez da oso ohikoa oraindik. Erreportajearen muinaren osagarri bezala ulertzen da.

Infografia

1. Datu estatistikoak
2. Edozein prozesuren azalpena errazteko, testuaren bidez zaila izango zena (esaterako birus baten jokaera azaltzeko)
3. Erreportajearekin zerikusia duen objektu baten ezaugarriak erakusteko (adibidez, FIFAREN baloi berria)
4. Edozein motatako mapen bisualizaziorako (adibidez herrialde baten mapa edo golf zelai baten zuloak ikusteko)

Iturri dokumentalak

1. Erreportajearen gaien sakontzeko aukera eskeintzen du.
2. Erreportajearen konfiguraziorako erabilgarriak diren iturrien agerpena.
3. Ezagupenaren alor formalagoekin erlazionatu daiteke (adibidez testu akademikoak)

Lotura edo esteken jatorria:

1. Dokumentu ofizialak
2. Instituzioek sortutako monografikoak
3. Izaera akademikoa duten ikerlanak
4. Gaietan adituak diren webguneak edo ofizialak direnak

- Erreportajearen egitura

Goiburua: Titulua ez da bakarrik **informatzailea** izango, **erakargarria** ere izango da. **Askatasun** formal eta estilistikoa handiagoa da albistearekin alderatuta. Titulua **laburra** izango da (sei hitz baino gehiago ez izatea gomendatzen da). Hainbat aukera daude: umoreari lotutako titulua izan daiteke, galderak ager daitezke... **Titulua eta azpitulua ez dira independenteak**. Titulua arreta pizteko erabiltzen da maiz horregatik gero azpitulua erreportajearen gaia azaldu behar du.

Paperezko edizioetan sormen handikoak izan ohi dira erreportajeen tituluak, eta askotan, azpitulua eta goititulua osatuak. Sormeneko titulua idatziz gero, azpituluan ematen da berriari buruzko eduki informatiboa. **Sormeneko tituluak posizionatze-estrategia oztopatzen dute**. Tituluak ZER galderari erantzuten ez badio gako-hitzak azpituluan sartu behar dira (bilatzaileari esango diote erreportajea zertaz datzan). Sarean inoiz baino garrantzitsuagoa da, **titulu berbera euskarri desberdinetan agertzea**: blogak, tabletak... (esteka bat da, azalean ematen dena, informaziorako sarbidea da). **Zatidurek** ere izenburua daramate.

Sarrerak:

Sarrerak hiru helburu dauzka: **Amu** bat da irakurlearen arreta pizteko. Testuaren **edukiaren pista** bat ematen du. Irakurtzen jarraitzera gonbidatzen du.

Sareko erreportaje baten sarrera idazterakoan hiru aukera dauzkagu: **Originaltasuna**: Gaia nahiko ezaguna denean ikuspuntu edo enfoke original bat bila dezakegu. **Berritasuna**: Ezaguna ez den alderdi edo aspektu berri bat azal dezakegu sarreran. Berria dena eta interesa daukana **estiloaren bidez kontatzeko trebetasuna** lor dezakegu sarreran.

- **Sarrera motak**

Sumario sarrera. Puntu edo sekuentzia zerrenda bat da, erreportajearen alor ezberdinen ideia bat ematen dutenak

Narrazio sarrera. Irakurlea erakartzeko narrazioa da protagonista, ekintzak. Zaindu behar da zer kontatzen den eta nola kontatzen den. Erritmoa, hiztegia eta esaldien luzera garrantzitsuak dira. Erreportajearen gaiarekin zerikusia izan behar du sarrerak edo bere alderdi interesgarriren baten adibide behar du izan.

Sarrera deskribatzailea. Narrazioan ekintzak kontatzen dira, deskripzioan egoerak. Eszena edo egoera bat deskribatzen da, normalean kazetariak bertatik bertara ikusi duena. Bide batez, kazetaria bertan izan dela adierazten du, lehen pertsona erabili behar izan gabe. Pertsonaiak, objektuak, paisaiak, giroak erakusten dira.

Kontraste sarrera. Erreportajearen kontrasteak daudenean eta ikuspegiak kontraste horiek nabarmentzen dituen erabiltzen da.

Galdera sarrera. Irakurlearen interesa lortzeko enigma bat planteatzean datza. Segidan eskaini daiteke erantzuna, edo pixkanaka erantzuten joan, edo bukaeran.

Deitzailea. Irakurleari zuzentzen zaion hasiera, bigarren pertsona erabiliz. Gazteleraz, apelatiboa.

Aipu-sarrera. Iturri dokumental edo pertsonal baten hitzekin abiatzen da. Kontuz ibili behar da. Iritzi kontrajarriak badaude erreportajearen, normalean ez da egokia.

Dedukzio sarrera. Orokorretik partikularra doa, egoera orokorretik kasu zehatzera, abstrakzioetik adierazgarria den xehetasun batera.

Kasuzko-sarrera

Parodiako sarrera. Poemak, estrofa, atsotitzak eta abar imitatu, baina buelta bat emanez. Gertaera edo ekintzak azaltzen dira, baina ironia edo burla puntu batekin.

Suspense sarrera (asmakizun estilokoa). Asmakizun modukoa planteatzen zaio irakurleari. Paragrafoaren bukaera arte (edo hurrengo paragraforen batera arte) ez zaio argitzen zertaz ari den, edo ez zaio ematen testuinguru osoa, nahita informazio esanguratsua gerorako utzita.

Sarrera sinbolikoa. Kontzeptuak adierazteko metaforak edo irudiak erabiltzen direnean. Boxeoa alderdi politikoei buruz hitz egiteko erabiltzen denean, kasu.

- **Gorputza**

Hiru osagarri agertzen dira: **Giroa / background**: erreportajearen gertakizunak testuinguruan kokatzen dira eta oraina iraganarekin erlazionatzen da. **Datuak eta adierazpenak**: gertakizun zentrala, ideia nagusia ezagutzera eman behar da. Horretarako: datu adierazkorak, datu osagarriak erabili behar dira eta adituen edo protagonisten adierazpenak sartu behar dira. **Balorazioak Adituen** balorazioak, adituen interpretazioak beharrezkoak dira gaiaren garrantzia behar bezala ulertzeko.

- **Gorputza egituratzeko aukerak sarean**

DIALEKTIKA EDO KONTRAPUNTUA (blokeak) Gai bati buruz bertsio desberdinak daudenean egitura hau erabili daiteke. KASUZ KASUKO EGITURA / HISTORIA PERTSONALAK (blokeak). Kronologia Gauzak hasieratik amaieraraino kontatzen dira. Gertakizun bat nola gertatu zen azaltzeko erabiltzen da. Helburua ez da bakarrik gauza bat nolakoa den azaltzea baizik eta nola gertatu zen argitzea.

- **Transizioak**

Erreportajearen **zati ezberdinak lotzen** dituzten elementuak dira. Testuari erritmoa emango diote. Sarrera, gorputza eta amaiera erlazionatu egiten dituzte. Paragrafoak lotzen dituzte. Ondo erabiliz gero irakurlea ez da ohartzen. Gaizki erabiliz gero irakurgarritasuna oztopatu dezakete. Juntagailuak eta lokailuak dira: zerrendaketa, sinonimoak, azkenengo esalditik ideiak hartu hurrengo paragrafoa hasteko... (Hala ere, beraz, hori dela eta,...).

- **Erreportajearen amaiera**

Erreportajea **biribiltzen** du. Irakurleak erabateko idazkia irakurri duela pentsatu behar du. Garrantzi handiko osagaia da eta zaindu behar dugu. **Arrazonamenduaren garapenaren ondorioz, eta azalpen ondo egituratuaren ondorioz, dator amaiera ona. Erreportajearen izaerarekin, estiloarekin eta mamiarekin bat** etorriko da amaiera. Gaiak, helburuak edo kazetariaren estiloak eragina izango du ere. Hainbat aukera: aipuak eta lekukotasunak nagusi badira erreportajearen, aipu batekin amaitzea komenigarria litzateke. Kontaketa diakronikoa edo kronologikoa bada, guregandik gertuago dagoena. Laburpen modukoa ere izan daiteke. Etorkizunari begira zerbait planteatu dezake... Kazetariaren iritzia edo epaia baztertu.

- **Erreportaje motak sarean**

1- Informazio erreportajea. Paperezko erreportajeak egiteko jarraitzen diren irizpide berdinak erabiltzen dira. Tetua multimedia baliabideen ginetik dago. Erreportaje laburrak dira. Gai libre, estilo zuzenean idatzia. Hipertestualitatea eta multimediatasunaren erabilera eskasa. Kontaketa lineala nagusitzen da. Gaia gaurkotasanari lotuta joaten da. Berehalako gaiak, argitaratzen diren momentuan hurbilak direnak eta gai zehatz baten inguruko sakoneko analisi bat eskeini nahi dutenak: gorberru aldaketa bat, nazioarteko goi-bilera bat, kirol ekitaldi garrantzitsu bat... Erreportaje mota honek albiste izan diren edo izan litezkeen gertaerak xeheago azaltzeko aukera ematen du, nondik norakoen berri emanez. Epairik edo iritzirik eman gabe.

2- Webgune/erreportaje berezia. Informazio erreportajeak baino **luzeagoak/sakonagoak** izan ohi dira. Gaiaren aurrekariak eta testuingurua eskaini behar dute. Ez daukate maiztasun zehatzik. Eragin handiko **gaiak** jorratzen dituzte: immigrazioa, terrorismoa, langabezia, aldaketa klimatikoa, etab. Baita ekitaldi bereziak ere: Frantziako tourra, hauteskundeak, urteurrenak... Batzuetan gai horiek aurreikus daitezke: urteurrenak, esaterako. Beste batzuetan gaurkotasuna luzaro dirau: immigrazioa edo aldaketa klimatikoa adibidez.

3- Multimedia erreportajea. Benetako multimedia da. Baliabide edo eduki multimedien **integrazioa** eskatzen du. Bideoak eta grafikoak oinarritzko baliabideak dira. Elkarreraginaren garrantzia. 2001eko irailaren 11ko atentatuaren ondorioz garatu zen (*Show, don't tell* leloa) Simulazio originalak dira, produktu hauek originaltasuna bultzatzen dute. Ordenagailu-jokoaren antza dute. Erreportaje honek bestelako gaitasunak eskatzen dizkie ziberkazetariei (programatzaileak, etab.)

4- Dossier dokumentala. Gai berdina jorratzen duten hemerrotekako artikuluz osatutako dossier gutxi gora behera egituratuaz dago osatuta.